



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2023.06.27

Ordua: 18:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Udalean genero mainstreaming-a garatzeko konpromisoen dekalogoaren onartzea.
3. Uztailaren 23ko hauteskunde orokorretarako hauteskunde-mahaiaren zozketa.
4. Alkate Ebazpenak.
5. Galderak eta eskaerak.
6. Ekainaren 28ko LGTBIQ+ adierazpen instituzionala.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2023/05/23ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI da.

2. UDALEAN GENERO MAINSTREAMING-A GARATZEKO KONPROMISOEN DEKALOGOIA ONARTZEA.

Idazkariak 2023ko ekainaren 16ean Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuko berdintasun teknikariak helarazi duen dokumentazioa azaldu du. Horrela bada, 2023-2027ko III. Berdintasun Planean paratzen duen lehen ekintzari jarraituz, udalean genero mainstreaming-a garatzeko konpromisoen dekalogoia onartu beharko litzateke, hala badagokio.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

1.- Udalean genero mainstreaming-a garatzeko konpromisoen dekalogoia onartzea.

2.- Akordio hau Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

3. UZTAILAREN 23KO HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ZOZKETA.

2023ko uztailaren 23an izanen diren hauteskunde orokorrak direla eta, legez ezarritako arau guztiak bete ondoren, osoko bilkura honek aipatzen diren hauteskunde mahaia eratu du aipatzen diren pertsonekin eta zehazten diren karguetarako:

-TITULARRAK:

- MAHAIBURUA: Nekane Maya Almandoz and.
- 1. MAHAIKIDEA: Gabina Goia Iparragirre and.
- 2. MAHAIKIDEA: Maria Lourdes Madariaga Vergara and.

-ORDEZKOAK:

- MAHAIBURUAREN 1. ordezkoa: Ion Mikel Mariezkurrena Salaberri jn.
- MAHAIBURUAREN 2. ordezkoa: Gotzon Mirena Arenas Salaz jn.
- MAHAIBURUAREN 3. ordezkoa: Mirari Leiza Mitxelena and.
- MAHAIBURUAREN 4. ordezkoa: Aimar Zubieta Larretxea jn.
- MAHAIBURUAREN 5. ordezkoa: Karla Maria Zavala Zamora and.
- 1. MAHAIKIDEAREN 1. ordezkoa: Maria Pilar Echeverria Madariaga and.
- 1. MAHAIKIDEAREN 2. ordezkoa: Rosa Maria Iribarren Echeguia and.
- 1. MAHAIKIDEAREN 3. ordezkoa: Maria Nieves Gamio Salaberria and.
- 1. MAHAIKIDEAREN 4. ordezkoa: Maite Lujanbio Etxarri and.
- 1. MAHAIKIDEAREN 5. ordezkoa: Eneritz Ansa Lasa and.
- 2. MAHAIKIDEAREN 1. ordezkoa: Alicia Beizama Rezabal and.

- 2. MAHAIKIDEAREN 2. ordezkoa: Julen Oteiza Almandoz jn.
- 2. MAHAIKIDEAREN 3. ordezkoa: Maria Teresa Pagola Echeveste and.
- 2. MAHAIKIDEAREN 4. ordezkoa: Xabier Etxague Alcalde jn.
- 2. MAHAIKIDEAREN 5. ordezkoa: Oihana Amoros Abrego and.

4. ALKATEAREN EBAZPENAK.

56/2023tik 78/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

5. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura uztailaren bigarren astetik aitzin izanen dela jakinda eta honako akordio hau hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hau osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak. Osoko bilkurak, LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ, ADOSTU DU "ekainaren 28ko LGTBIQ+ adierazpen instituzionala" osoko bilkura honetan lantzea.

6. EKAINAREN 28KO LGTBIQ+ ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

LGTBIQ+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Hainbat urte igaro dira 1969ko ekainaren 28tik, Stonewallen (New York) lesbiana, gay, transexual eta, batez ere, trabestiak poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpenaren aurrean matxinatu zirenetik.


Orduetik, ekainaren 28a esanahi handiz betetako data da mundu guzian, alde batetik, borroka luze baten emaitza gisa lortutako eskubideak ospatzeko eguna, baino baita aurrerantz egiteko falta den guzia aldarrikatzeko eguna ere. Izan ere, arlo honetan aurrerapauso handiak eman diren arren, argi dugu oraindik ere diskriminazio egoerak ez direla bukatu eta entitate publiko garen heinean gure ardura ere badela diskriminazio egoerei amaiera emateko lan egitea.

Horregatik, aurtengo ekainaren 28 honetan ere, Arantzako Udalak, aniztasunetik abiatuta, eskubide eta askatasunaren aldeko aldarrikapena egin nahi du LGTBIQ+ kolektibo guziarentzat.

Arantzako Udaletik gure herriko, eta orokorrean gizarteko dibertsitatea balorean jarri eta garen hori izateko harrotasuna aldarrikatu nahi dugu. Horregatik, konpromisoa hartzen dugu LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak eta ikusgarritasuna bultzatzen dituzten jarduerak bultzatzeko. Bat egiten dugu Nafarroako Gobernuak "Harrotasunez gozatzen" lelopean publiko egin duen kanpainarekin, LGTBI+ pertsonen espazio guztietan askatasunez egoteko eta adierazteko duten eskubidea aldarrikatuz.

Bertze aztergarik izan gabe, 18:45 direnean, jarduneko alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


JARDUNEKO ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte